2004-XII-17
Número **148.** zenbakia
ELA
astekaria

# EDITORIALA

## ELAREN INTENTZIOAK, AUZITAN

ELAren XI Kongresu ostean hainbat iritzi kritiko azaldu da gure sindikatuari buruz, ezker abertzale *ofizial*aren inguruko sektore jakin batzutan. Adierazpen horietan, ordea, ELAk bere kongresuan esan duenari edota egunero egiten duen lanari buruzko kritikak baino intentzioen inguruko juzkuak islatzen dira. "Kontuz ELArekin –diote–, itxuraz gauza bat bada ere, bere benetako izaera eta asmoak bestelakoak izan bailitezke". ELA fidagarria ez dela argudiatzeko historia eta, behar izanez gero, genealogia ere nahierara erabiltzen dira.

Badirudi kritika hauek bizi dugun egoera sindikal eta politiko honetan ELAk jokatzen duen paperari buruzko bertsio ofiziala eman nahi dutela eta, bide batez, sindikalismo abertzalearen baitan eman den krisiaren erantzukizuna guztiz ELAri leporatu; horrela, gainera, ELAk sektore abertzale zabalen artean lortu duen sinesgarritasuna pitzatuko litzateke. Kutsu defentsiboa dario, inolaz ere, bertsio ofizial horri.

ELArentzat negoziazio kolektiboan eta arlo politikoan bizi dugun LABekiko krisia tamalgarria da, batzuren eta besteon indarrak ahultzen baititu; inor ez dabil indarrez sobera. Baina uste dugu, boluntarismoa alde batera utzita, gauzak diren moduan onartu beharra dagoela.

Batetik, negoziazio kolektiboan bi sindikatuen artean dauden arazoak ez dira axalekoak, sakonak baizik, 2004ko akordioaren porrotak garbi utzi duenez, eta ez dira epe laburrean konponduko. Hori kontutan izanik ari gara dagoeneko datorren urteko hitzarmenen negoziazioa prestatzen.

Arlo politikoan, berriz, Anoetako mezu baikorren eta aldarrikatu ziren balore berrien gauzatzea inoren konpromisoen ordaintzat ulertzen bada, LABekiko lankidetza abian jartzeko baldintzak ez dira berehalakoak. Egoera zaila, beraz, ahal den patxada handienaz igaro beharrekoa, ahal diren lankidetza esparru apurrak zainduz eta bi erakundeen artean ahal den komunikazioari eutsiz.



## ELAK SINDIKATU LIBREEN NAZIOARTEKO KONFEDERAZIOAREN 18. KONGRESUAN PARTE HARTU DU

# 2006AN ERATUKO DA NAZIOARTEKO KONFEDERAZIO BERRIA

**Miyazakin (Japonia) abenduaren 5tik 10era ospatu den Sindikatu libreen Nazioarteko Konfederazioaren (SLNK) 18. Kongresuak babes osoa eskaini dio Lanaren Munduko Konfederazioarekin (LMK) bat egin eta nazioarteko konfederazio berria osatzeko proiektuari.**

SLNK internazionala ideologia sozialistakoa da, eta 148 miloi langile ordezkatzen ditu mundu osoan. LMKren jatorria kristaua da, eta 17 miloi langile batzen dituzten sindikatuak ditu barnean. ELA, bietako kidea da. Afiliazio bikoitz ez ohiko hau abagune historikoen ondorioa da, eta ELA eta Poloniako Solidarnosc-ek dute soilik.

Miyazakin erabakitakoaren arabera, sortuko den nazioarteko konfederazio berria ez da mugatuko LMK eta SLNK-ren kideak jasotzera, baizik eta beste sindikatu demokratiko eta independenteei irekia egongo da.

*(2.orr.)*



***En la imagen, Laura González de Txabarri, responsable del área internacional, interviene en el XVIII Congreso de la CIOSL, donde se ha decidido la fusión con la CMT.***

## PNV, PSE,

# NO A LA APERTURA EN FESTIVOS

En las últimas semanas se han sucedido las manifestaciones y concentraciones en contra de la apertura de los comercios en festivos, y para exigir al Gobierno Vasco que retire el borrador de decreto que permite su apertura en ocho días festivos. Bajo el lema "Jai egunetan jai. Aquí 0.", los sindicatos ELA y LAB han llevado la protesta a los centros comerciales.

El pasado martes, 14 de diciembre, más de un millar de personas participaron en la manifestación que partió del centro comercial Boulevard de Gasteiz y finalizó en Lakua. Unai Martinez, secretario general de Zerbitzuak, señalo al término de la manifestación que si los centros comerciales pretenden abrir en festivos, "nos tendrán enfrente".

*(Pág. 2)*




**CONTRA LOS PRESUPUESTOS NEOLIBERALES**
**MOVILIZACIONES ANTE LOS PARLAMENTOS**

**IRUÑA 22 DIC, 12 H. / GASTEIZ 28 DIC, 11 H.**




## ● Más movilizaciones en la Ertzaintza

Representantes de ELA se concentraron a la entrada de la academia de Arkaute, coincidiendo con la entrega de los diplomas a los agentes con más de 20 años de servicio en el cuerpo, para exigir la negociación del convenio y denunciar la reducción de las prestaciones económicas a los ertzainas fallecidos en acto de servicio o por invalidez. Además, exigió al departamento de interior que "resuelva de manera negociada el problema, cada vez más acuciante, de la segunda actividad".

## ● Contra la marginación sindical en Mercedes

El pasado 14 de diciembre se ha celebrado en Gasteiz el juicio promovido por la mayoría del Comité (ELA, USO, LAB y ESK) impugnando el Pacto de Eficacia Limitada (Extraestatutario) firmado por UGT, CCOO y la Dirección de DaimlerChryslerEspaña (DCE). La razón fundamental de dicho juicio es la exclusión del comité de las comisiones de trabajo sobre temas de gran importancia (modificaciones de cargas de trabajo, valoraciones de puestos, movilidad funcional, aplicación de flexibilidad, temas sociales, etc.).

## ● Gurutze Gorriaren ospitaleak pribatizatzeko asmoen aurka

Espainiako Gurutze Gorriko nagusiek egituran dituzten ospitaleak saltzeko erabakia hartu dute, besteak beste Bilbo, Donostia eta Irungoa. Erabaki hau ez da dirua galtzen dutelako (etekinak jasotzen dituzte), baizik eta erabaki estrategiko baten ondorio hutsa. Ez da egoitzen salmenta aurreikusten, baizik eta jabetza mantenduz, Ospitaleak, hau da negozioa, saltzea. Erakundeak hori guztia negoziatzerik nahi ez duenez, Bilboko Ospitalean mobilizazioak hasi dira ( 5 ELA-kidek ordezkaturiko 89 pertsona plantillan): sinadura bilketak, itxialdia, ordubeteko lanuztea Ospitale aurrean edota egun bateko lanuztea, etorkizunerako bermeak eskatzeko.

## ● Contra el cierre a plazos de La Naval

Para ELA, el acuerdo firmado el pasado jueves por la SEPI, UGT, CCOO y USTG supone asumir los planteamientos que la sociedad pública hizo ya en septiembre. Esto arrastrará a un cierre paulatino de La Naval, único gran astillero del grupo Izar que queda fuera del nuevo grupo público que se constiturá, que agrupará a los astilleros dedicados a la actividad militar. Para ELA, las negociaciones no han sido más que una mascarada pactada entre la SEPI y los sindicatos firmantes, y que culmina con un acuerdo que deja todo en el aire en lo referente a La Naval de Sestao.

## SLNK-REN XVIII BILTZARRA / ABENDUAK 5-10, MIYAZAKI (JAPONIA)

Internazional berrirako asmoa aspaldikoa bada ere, Guy Ryder SLNK-ko idazkari nagusi berriaren lan zehatzak eta ausardiak eman diote proiektuari behar zuen bultzada. Willy This LMK-ko idazkari nagusiaren lana ere garrantzitsua izan da bere erakundeak prosezuarekin bat egin zezan. Willy This bera zuzendu zaio gaur goizeko saioan SLNK-ko Kongresuari LMK-ak batasunarekin hartutako konpromisoa berresteko.

Ryder idazkaria nagusiak iragarri duenez 2006 urtean sortuko litzateke nazioarteko erakunde berria

ELAren ordezkaritzak (German Kortabarria idazkari nagusi ordekoa eta Laura Gonzalez de Txabarri nazioarteko idazkariak osatzen dutena) parte hartu du Miyazakiko Kongresuan. Kongresuari zuzendutako mintzaldian Laura Gonzalez de Txabarrik batasun prozesuarekiko eta erakunde berrirako SLNK eta LMK-ak hitzartutako printzipio eta oinarriekiko adostasun osoa adierazi du. Azpimarratzekoa da printzipio horietan (Miyazakin onartuak izan direnak) herrien autodeterminazio eskubidea aitortzen dela. Printzipio horiek beste erakunde eta gizarte mugimenduekin lankidetza sustatzeko xedea ere adierazten dute.


Guy Ryder


Willy This

## HACIA UNA SOLA INTERNACIONAL SINDICAL

El proceso de fusión de las confederaciones sindicales internacionales CIOSL y CMT ha sido, sin duda, el tema central del 18. Congreso de la CIOSL, celebrado en Miyazaki (Japón) entre el 5 y el 10 de diciembre. Aunque la aspiracion de constituir una nueva internacional unificada no es nueva, ha sido la determinacion del actual secretario general de la CIOSL, el britanico Guy Ryder, la que ha dado un impulso decisivo a este proceso dentro de la CIOSl. Igualmente ha sido de gran importancia el trabajo desarrollado en la CMT por su secretario general, el belga Willy This, que ha intervenido en Miyazaki para ratificar el compromiso con la unidad.

La CIOSL, de orientacion socialista, esta integrada actualmente por confederaciones que agrupan a 149 millones de trabajadores y trabajadoras en todo el mundo. La CMT, de origen cristiano, representa a alrededor de 17 millones de personas afiliadas a los sindicatos que la integran. La voluntad manifestada por Ryder es la de que la nueva confederacion pueda constituirse en 2006.

ELA, presente en el Congreso de Miyazaki mediante su secretario general adjunto, German Kortabarria, y la secretaria de relaciones internacionales, Laura Gonzalez de Txabarri, ha dado su total apoyo a este proceso, en particular a los principios acordados por CIOSL y CMT para la nueva internacional, entre los que se recoge el reconocimiento del derecho de autodeterminacion de los pueblos. ELA ha valorado también muy positivamente que la nueva confederacion no se limite a la suma de las organizaciones que integran actualmente la CMT y la CIOSL, sino que manifieste su voluntad de apertura a otras organizaciones que respeten los principios de democracia e independencia sindical, asi como la voluntad de fomentar las alianzas con otras organizaciones y movimientos sociales.

### Unai Martínez, Zerbitzuak federazioko idazkari nagusia

# JAI EGUNETAN, GUZTIOK JAI

**Azken hamabostaldian hainbat mobilizazio egin da beste hainbat merkatal gunetan jai egunetan ateak itxirik jarrai dezatela eskatuz. "Jai egunetan jai" lemapean ELA eta LAB sindikatuak mobilizazio kanpainari ekin diote, eta honen adierazgarri izan da joan den asteazkenean, hilak 14an, Gasteizen izandako manifestazio jendetsua. Bi sindikatuok industria, merkataritza eta turismo sailari dekretu proposamena bertan behera uztea eskatzen diote, zeinen biatartez zortzi jai egunetan ireki ahal izango dira denda eta gune komertzialak.**

**–Eusko Jaurlaritzak onartu berri du dekretu zirriborroa dendak eta merkatal guneak zortzi egunetan zabaldu ahal izateko; zer iritzi duzu honetaz?**

–Harritzekoa egiten zaigu, erabat, Madrilgo gobernuaren lege proposamenaren aurrean Gasteizkoak mantentzen duen jarrera. Merkataritzako ordutegien erregulazioa zehazteko eskuduntza Erkidego autonomoena da. Beraz, Madrilgo gobernuak eskuduntzak bereganatzeak eta Eusko Jaurlaritzak honen aurrean jarrera erabat pasiboa mantentzeak ez dugu ulertzen. Are gehiago, gobernuaren erabakia Madrilgo gobernuaren legea dekretu bidez garatzea da. Autogobernuaren aurkako beste eraso baten aurrean gaude, eta berriro ere Euskal gobernuaren jarrera oso modu negatiboan baloratzen dugu.

**–Dena den, hemen akordio bat izan da langile eta denbarien artean, eta jai egunetan jai egin da.**

–Orain arte EAEn, estatuarekiko erabat desberdina izan den merkataritzako ordutegien errealitatea ezagutu dugu. Hemen, autoerregulazioaren bitartez, enpresari txiki eta ertainen, langile eta kontsumitzaileen eskubideak bermatuak izan dira. Baina proposamen honek errealitate hori aldatzea du helburu, eta aldaketa honek galera haundiak ekarri ditzake sektore guztiarentzako. Alde batetik, 8 jai egun eta igandeak irekitzeak lanpostu galerak ekarriko ditu. Bestetik, merkataritzan lan egiten duten langileen lan baldintzen okertze nabaria eta kontsumo arduragabea bultzatzea.

**–Jaurlaritzaren proposamena zeinen alde egina dago?**

–Dudarik gabe, merkatal gune handien aldeko apostua da. Hain zuzen, aipatu beharra dago dekretu proposamenean soilik zein egunetan ezin den ireki azaltzen dela. Beraz, merkatari handiek edozein igande eta jai egunetan irekitzea erabaki dezakete, eta beraien denden irekiera egunak txandakatuz, lurralde bakoitzean beti egon daiteke merkatal gune haundi bat zabalik.

## Adolfo Muñoz, *Txiki*, responsable de negociación colectiva

# "DEBEMOS ATACAR LA PRECARIEDAD DESDE ABAJO"



**Adolfo Muñoz, que ha sido secretario general de la federación del metal, es, desde el XI Congreso, el nuevo responsable de negociación colectiva de ELA. En la siguiente entrevista nos explica las claves de este año que acaba y cómo va a abordar el sindicato los convenios de 2005.**

**–¿Cómo resumirías lo ocurrido en la negociación colectiva de 2004?**

–La conclusión de la negociación de este año, sobre todo en los convenios del metal, pero que se puede aplicar a todos los sectores, es que la patronal busca el ámbito en el que se ve más fuerte, donde está más cómoda, que son los convenios sectoriales. Por eso, la oferta que hace ahora en el ámbito sectorial viene a ser la misma que la de principios de año, y si no buscamos alternativas se pierde todo un año de trabajo. Nosotros también debemos buscar los niveles donde seamos más fuertes.

**–¿Cuál es la consecuencia?**

–A partir de esa reflexión, cada federación tiene que buscar esa alternativa para superar el bloqueo patronal en sectores y empresas. Porque, de hecho, tenemos mucho margen para reivindicar, y la negociación colectiva que pretenden los empresarios deja de lado todo lo relacionado con la precariedad. El ámbito sectorial es inútil para resolver la temporalidad y las discriminaciones. El reto sindical es disputar a la patronal los privilegios que ha ido acumulando gracias a unas relaciones laborales que han empeorado a lo largo de mucho tiempo.

**–No estamos igual de fuertes en todas partes...**

–Ciertamente, todos los sectores y empresas no tienen las mismas condiciones, pero la clave está en el plan de trabajo que se establezca en cada sitio, partiendo de que no podemos conformarnos con la situación actual.

### CONDICIONAR DESDE ABAJO

**–¿Qué hay que hacer en 2005?**

–Vamos a organizar la negociación colectiva con gran rigor, contando con la gente de cada centro de trabajo. A los delegados y delegadas de ELA, que son líderes de opinión en su respectivo entorno, les corresponde una labor difícil, pero esa es, precisamente, la misión del sindicalismo.

Hay que desmitificar la negociación colectiva institucionalizada porque, o estamos abajo y tenemos capacidad de condicionar, o seguiremos viendo cómo se deterioran paulatinamente las condiciones de trabajo. La estrategia de las patronales y las administraciones públicas (ahí está el crudo ejemplo de Eudel) está muy clara, y su ambición no tiene límite.

**–¿Cuál será la prioridad de 2005 para ELA?**

–En teoría, a todos nos preocupa la precariedad y temporalidad, o que grandes colectivos como las mujeres y los jóvenes estén discriminados. Pero más allá de las declaraciones, a este respecto planteamos un objetivo concreto: el instrumento básico para contrarrestar esas situaciones es la negociación colectiva, los convenios que negociamos en cada empresa y cada sector; quien no le dé la importancia que tiene está fuera de juego. O haces un sindicalismo reivindicativo o la praxis sindical no tiene nada que ver con lo que se dice.

**–¿Y cómo se va a plantear ese trabajo?**

–Por un lado, vamos a preparar a las delegadas y delegados de empresas y sectores para que se dediquen a combatir la precariedad, siendo conscientes de que este proceso no tiene marcha atrás. Por otro, este planteamiento supone una organización muy exigente para los y las responsables de las federaciones, porque tienen que estar muy encima de los procesos de negociación que estén abiertos, y en permanente contacto con delegadas y delegados.

**–¿Cómo pinta este año?**

–Si alguien duda de las intenciones de la patronal en su afán por conseguir beneficios aún mayores, que se fije en lo que están cociendo en Madrid: CEOE, UGT y CC OO van a firmar por cuarta vez consecutiva un acuerdo sobre negociación colectiva que tratará de 'poner orden' en todo el estado, o sea, de dejar las cosas como están. Las patronales siguen en su empeño de atacar la ultraactividad de los convenios –querrían que la negociación partiera cada vez de cero–, acentuar la individualidad de las relaciones laborales y seguir abaratando el despido.

Nosotros, en cambio, buscaremos abrir negociaciones en todos los ámbitos donde nos sea posible, incluidas las empresas pequeñas. Este año que entra atacaremos la precariedad. Si la trabajamos bien, la podemos convertir en una oportunidad sindical. Se trata de poner al sindicato al servicio de las personas en precario.





## El debate más político

El presupuesto es la radiografía de las intenciones de un gobierno. Desnudo de ropajes, aditamentos y retóricas, nos indica cuáles son las prioridades reales, qué le importa de verdad a un gobierno y cuánto le importa. El debate presupuestario es, en consecuencia, el debate político por excelencia.

Lamentablemente, nos hemos acostumbrado a que los debates presupuestarios pasen sin tocar el modelo de sociedad, ya que los debates "políticos" ocultan la falta de discusión sobre esta cuestión, en la que las posiciones de unos y otros son básicamente coincidentes.

ELA lleva tiempo intentando sacar estos temas a la plaza del debate social. Con eco muy limitado, por cierto. La incomodidad que en las autoridades ha suscitado la campaña sobre "nuestros" neoliberales es, en este sentido, una buena señal. Es una tarea en la que ELA va a insistir, y en la que también se deben hacer notar poco a poco las mejoras en organización y estructuras militantes del sindicato.

La medida del carácter social de unos presupuestos es la medida de su voluntad de redistribución de la riqueza a favor de los sectores menos favorecidos. En el análisis de los presupuestos de ambos gobiernos se aprecia una clara renuncia a la redistribución. Son unos presupuestos obsesionados por seguir el catón neoliberal, reducir el gasto público hasta el extremo de cerrar los ejercicios con superávit (algo que se está convirtiendo en habitual en la CAPV), lo que acarrea la reducción del porcentaje de riqueza destinado al gasto social (sanidad y educación, por ejemplo). La consecuencia es la "des-convergencia" social con Europa, ya que cada ejercicio presupuestario nos aleja un poco más de los países que han configurado el modelo social europeo.

Son, en definitiva, presupuestos que favorecen a los sectores más favorecidos de la sociedad y prestan una atención manifiestamente insuficiente a los sectores menos favorecidos. Unos presupuestos, en definitiva, que avalan la desigualdad en vez de promover la justicia.

Está más que justificada, por tanto, la campaña que conjuntamente con LAB, ESK y STEE-EILAS vamos a llevar a cabo en los próximos días contra los presupuestos de ambos gobiernos.

HI

astekaria

# EMAKUMEEN 2005EKO MUNDUKO MARTXA



**Jendarteari zuzendutako Emakumeen Munduko Kartaren onerpenarekin hasi da 2005eko Martxa. Karta abenduaren 4tik 12ra bitartean Ruandako Kigali hirian izan den emakumeen nazioarteko 5. Topaketan landu da, besteak beste Euskal Herriko plataformak bidalitako ordezkaria ere han zelarik.**

Emakumeen munduko Martxa 2000. urtean sortutako sare feminista bat da; bertan 163 herritako 5.500 erakundek hartzen dute parte, eta indarkeria eta pobreziaren kontra ekimen amankomunak egiteko eratu·zen. 2005eko martxak haratago joateko helburua dauka, eta horregatik prestatu dute jendarteari zuzendutako emakumeen karta hori; martxoaren 8an plazaratuko da, Brasilen. Bestalde, Kigaliko biltzarrean hainbat gai ere jorratu dute mundu guztiko emakumeek: bakea eta desmilitarizazioa (Afrikako laku handietako eskualdeko taldeak aurkeztuta); aliantzak eta globalizazioa (Brasil); alternatiba ekonomiko feministak (Peru); lesbianen eskubideak (Holanda), eta emakumeen aurkako bortizkeria eta sexu-trafikoa (Filipinak).

## Marcha Mundial de las Mujeres 2005. Fechas clave:

- ✔ **8 de marzo de 2005 – Lanzamiento mundial de la Carta Mundial de las Mujeres para la Humanidad, Brasil.**
- ✔ **Del 8 de marzo al 17 de octubre – Relevo Mundial de la Carta y montaje progresivo de la Manta de Solidaridad Mundial. El relevo hace escala en 53 países.**
- ✔ **17 de octubre, 12.00 h – Las 24 horas de solidaridad feminista mundial se inician en Oceanía, y va de Este a Oeste.**
- ✔ **17 de octubre – Llegada de la Carta Mundial de las Mujeres para la Humanidad y de la Manta de la Solidaridad (fin del Relevo Mundial, Burkina Faso).**

## Labur Breves...

### ● Benetako negoziazioa eskatzen dute Osakidetzan

Osakidetzako langileek elkarteratzeak egin zituzten dute Donostia, Gasteiz eta Gurutzetako erietxeen aurrean zuzendaritzari benetako negoziazioak martxan jar ditzala eskatzeko (argazkian, Donostiako agerraldiaren une bat). Mobilizazioetara deitu zuten sindikatuek, ELA, SME, SATSE eta ESKak langileen %80 ordezkatzen dute. Badira lau urte Osakidetzan azken lan akordioa sinatu zenetik, eta denbora honetan Osakidetzako arduradunek ez dute ahaleginik egin berriz negoziazioei ekiteko.




Lau urte hauetan langileek kezkatzen dituzten arazoak larriagotu egin dira, eta horrela lan-baldintzak okertu egin dira (finkoenak, behin behinekoak...), lau sinikatuen esanetan.

Bestalde, ELAk Gurutzetako larrialdi zerbitzuak gainezka egin duela salatu du. Egoera jasan ezina da eta arazoari konponbidea ez baldin bazio jartzen okerrera egingo duela, adierazi du ELAko atal sindikalak.

### ● Solidaridad con Caballito

Trabajadores y trabajadoras de diversas empresas de Araba han anunciado su intención de ceder sus cestas de Navidad a los trabajadores y trabajadoras de Caballito, que se encuentran en huelga desde hace más de un año. Por otra parte, la dirección de la empresa sigue sin presentar el plan industrial que anunció hace más de nueve semanas. Un plan que, a juicio del comité, puede ser "una justificación para presentar un expediente de regulación de empleo o una excusa para mantener en la calle a cien familias y decir que están haciendo algo".

### ● Huelga en la residencia Uribarri de Durango

La totalidad de la plantilla de la Residencia Uribarri, de Durango, secundó la jornada de paro convocado



por el comité de empresa (en la imagen, un grupo de trabajadoras), en defensa de sus condiciones laborales. En el caso de que la Diputación Foral de Bizkaia no modifique su "actitud prepotente", los paros volverán a repetirse los días 3, 4 y 5 de enero.

ELA ha instado a la Diputación a que dé los pasos necesarios para que la apertura de la nueva residencia, que debería ser un hecho festejados por la ciudadanía de Durango, no se convierta en un conflicto enquistado de larga duración.

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66
Dep. legal BI-199-00
www.ela-sindikatua.org

**Franqueo concertado**
**nº 08/207**